

Ingurumen Buletin

berezia

- 1. Zer dira enplegu berdeak?**
- 2. Trantsiziorako eta enplegu berdeak sortzeko baldintzak.**
- 3. Hego Euskal Herrirako aurreikuspenak.**
- 4. Enplegu berdeen sorrera sektoreka.**



ELAk enplegua eta soldataren kanpainaren barruan, leku bat eman nahi die sektore iraunkorretan enplegua sortzeko dagoen potentzialari. Horretarako eskuorri bat eta kartel bat atera dugu, azaldu dezagun 106.000 lanpostu berde berri sortu daitezkeela Hego Euskal Herrian sektore estrategiko hauetan iraunkortasunaren aldeko apustua egiten bada.

1. Zer dira enplegu berdeak?

Planetaren eta bizitzaren etorkizunak, ekoizpen ereduaren eraldaketa eta ekonomiaren trantsizio sozial eta ekologikoa behar du. Horretarako ezinbestekoa izango da berotegi efektuko gasak, energia eta lehengaien kontsumoa murriztea. Enpleguari dagokionez, eraldaketa honen helburua izango da sektore iraunkorren aldeko apustu ekonomiko eta politikoari esker enplegua sortzea. Beharrezkoa izango da energia eta lehengai kontsumoan oso intentsiboak diren sektoreetatik hain intentsiboak ez diren sektoreetara enplegua lekualdatzea. Honek aldaketak ekarriko ditu lan eskaintza eta eskarian. Iraunkorrak ez diren enplegu galerari gaur egun oraindik garatu gabe dauden sektore iraunkorretan sortuko diren

enpleguak gehitu behar zaizkio: enplegu berdeak.

Beharrezkoa den ekonomiaren trantsizio sozial eta ekologikoa enplegu duin eta iraunkorrek berebiziko garrantzia dute. Energia gehiegi kontsumitu eta kutsadura handia eragiten duen egungo ekoizpen ereduak modu ordenatu eta progresiboa aldatu, eta planetaren mugak errespetatzen dituen eredu egokia lortzeko gakoak dira enplegu berdeak. Enplegu hauen sorrera langabezia eta eskusio sozial eta ekonomikoaren aurka egiteko modurik eraginkorrena dira.

OITren arabera “enplegu berdeak dira enpresen eta sektore ekonomikoaren ingurumen inpaktua maila iraunkorretaraino gutxitzen dutenak, eraginkortasun handiko estrategien bidez energia, lehengai eta ur kontsumoa murrizten dutenak, berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitzen dituztenak, hondakin edo kutsadura mota guztiak gutxitzen edo saihesten dituztenak eta ekosistemak eta biodibertsitatea zaintzen edo berreskuratzen laguntzen dutenak”.

Enplegu berdeak dira ingurumenaren aurkako kanpo-eraginak zuzentzeko eta baliabide naturalen leheneratze-gaitasuna

bermatzeko ohiko jarduera guztiak. Tartean izango dira, halaber, energia eskasiaren eta klima aldaketaren mende dagoen mundu batera egokitzeko behar diren jarduera guztiak:

- Giza jarduerak ingurumenean eragiten dituzten kalteak zuzentzea, gutxitzea edo konpontzea xede dutenak. Beste sektore ekonomiko guztiekiko zeharkakoak diren jarduerak: hondakinen kudeaketa, hondakin uren arazketa edo lurzoruen leheneratzea.

- Ondasunak eta zerbitzuak ingurumena zainduz ekoizten/eskaintzen dituztenak: nekazaritza ekologikoa, turismo ekologikoa, energia berriztagarriak, basozaintza jasangarria, parke naturalen kudeaketa edo balio ekologikoko eremuen leheneratzea.

- Prebentzioa edo kontrola xede duten zerbitzuak: kutsaduraren prebentzioan eta minimizazioan, ekodiseinuan eta ingurumen hezkuntzan eta sentibilizazioan jarduten direnak edo ingurumen erantzukizunak dituzten administrazioko sailek betetzen dituztenak.

- Beren produktu eta prozesuen ingurumen-modernizazioan aurrera ari diren ohiko sektoreetako enpresek eskaintzen dituztenak, eta produkzio-sistemaren ekoeraginkortasuna eta ekoefizientzia sustatzen duten ikerketa eta

garapen teknologikoko jarduerak.

- Pertsonen bitzita kalitatea bermatzen eta hobetzen duten zerbitzu publikoak: osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, garraio publikoa,...

2. Trantsiziorako eta enplegu berdeak sortzeko baldintzak

Trantsizioa posible egiteko baldintza nagusienetakoa ekoizpena, kontsumoa eta lanaren inguruan ditugun ideiak aldatzean datza. Etorkizunerako nahi dugun proiektu sozial desiragarria birpentsatu eta demokratikoki erabaki behar dugu, zeintzuk diren behar kolektiboak eta kontsumorakoak, eta non inbertitu nahi dugun gure lana. Birpentsatu behar dugun proiektua errealista eta planetaren mugak errespetatzen dituena izan behar da beti ere.

Aldaketa planifikazio parte-hartzaitetik proposatu behar da, bai administrazio mailan, eta baita enpresa mailan ere. Ehun sozioekonomikoan izango diren aldaketak tentsio eta gatazkak eragingo dituzte, arrazoi honengatik trantsizioa inplikaturako eragile guztien arteko elkarrizketa bidez egin behar da (sindikatuak, GKEak, kontsumitzaileak, enpresak,...).

Aldaketa hau aurrera eraman eta

planifikazio eta parte hartze demokratikoa posible izateko, politika publikoen bitartez prozesu honetarako marko juridiko egokia ezarri behar da. Ezinbestekoa izango da beharrezko baliabide publikoak bideratzea berregituratze hau finantzatzeko, enplegu berdeak sortzeko sektore estrategikoen garapenaren alde apustu eginez. Honetaz gain babes soziala, iraunkorrak ez diren sektoreetako langabetuei laguntzak, sektore iraunkorretarantz bideratzeko lanaren birmoldaketa, formazio planak eta ikasketa etengabea bermatu behar dira. Genero ikuspuntutik, neurri espezifikoak beharrezkoak izango dira enplegu berdeetan eta kalitatezkoetan dagoen emakume langileen portzentajea handiagoa izan dadin.

Edozein modutan, fiskaltasunaren erreforma (iruzur fiskalaren aurkako borroka tinkoa, sozietateen gaineko zerga eta errenta altu eta kapitalen gaineko zergak igotzea, etab.) eta kapital publiko eta pribatuaren mobilizazioa beharrezkoak izango dira bide honi ekiteko.

3. Hego Euskal Herrirako aurreikuspenak

2012rako ingurumenari lotutako sektoreetan 3,4 milioi enplegu izango zirela zioten Europar Batasunaren kalkuluek. Krisia

gorabehera, joera positiboari eutsi egin dio enplegu horien bolumenak azken urteotan. 2010ean egindako txosten baten arabera, EAEn eta Nafarroan, hurrenez hurren, 24.202 eta 9.328 enplegu berde zeuden.

Etorkizunera begira, “Ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala” (Inguru Gaiak) dokumentuan jaso genuen bezala, 90.000 lanpostu berde sor daitezke EAEn, IHOBek (2011) berriz 12.000 enplegu berde berri sor daitezkeela dio (kalkulu oso kontserbadorea nekazaritzari, eraikuntzari eta hondakinei dagokienez). Nafarroan, ez dago eskuragarri erakunde publikoen aurreikuspen orokorrik. Gure kalkuluen arabera, berriz, 12.000 enplegu berdetik gora sor daitezke hiru sektore hauetan: eraikuntzan, energia berriztagarrietan (biomasan, batez ere) eta mugikortasunean.

4. Enplegu berdeen sorrera sektoreka

Badira sektore estrategikoak non enplegu berdeen sorrera jada errealitatean den. EAEn nahiz Nafarroan enplegu sorrerarako benetako aukera dira:

Eraikinen birgaitze lanak

Krisiak gogorkien astindu duen sektorean dago, hain justu ere, EAEko eta Nafarroako enplegu berdearen hobi nagusia:

eraikuntzan. EAEn eta Nafarroan urtean 20.000 eta 4.000 etxebizitza, hurrenez hurren, birgaitzeko plan batek 18.000 eta 3.500 enplegu (zuzenekoak eta zeharkakoak) sortuko lituzke. Lanpostu horietako asko energia sistema eraginkorren instalazioak, estalki eta fatxaden isolamenduak eta berreraikuntzak sortuko lituzke; horrez gain, sektore berri eta bizi bat sortuko litzateke arkitektura bioklimatikoaren eta energia-aholkularitzaren inguruan. Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenek obra berrietarako 6.432 eta birgaitze lanetan beste 7.893 zuzeneko enplegu kalkulatu dituzte, zeharkako enpleguak gehituz, 30.000 enplegu sortzera iritsi daiteke.

Energia-sektorea

Trantsizio ekologikoak gure herriko energia horniduraren egitura aldatzea ere eskatzen du, eta energia berriztagarrien erabilerak %100era iritsi behar du, azken energia kontsumoa igo gabe eta *fracking*ik gabe. Sistema deszentralizatu bat behar da, eta lehentasuna eman autogenerazioko eta sare banatuko instalazioetan ekoiztako energia berriztagarriari (potentzia txiki-ertaineko eolikoa; fotovoltaikoa estalkietan, etab.). Sare hori fabrikatzeko, instalatzeko eta mantentzeko behar den azpiegiturak 20.000

enplegu sortuko lituzke EAEn. Horrez gain, euskal industrian ere eragin positiboa izango luke (hodiak, material elektrikoa, ekipondasunak...).

Nafarroan, non erabiltzen den energia berriztagarrien portzentajea %20tik gorakoa den, 2020rako %30era igotzea eta 6.300 lanpostu sortzea aurreikusten da.

Mugikortasuna

EAEk eta Nafarroak murriztu beharra daukate petrolioarekiko mendekotasuna, eta pertsona zein merkantziak garraiatzeko modua aldatu beharra dute. Auto pribatua gutxiago erabili behar da, eta alde batera utzi AHTa bezalako azpiegitura handiak, ingurumen inpaktu handia eragin eta merkantzia garraioa berenganatzeko ahalmen txikia baitute. Bestalde, ez dira gai tokian tokiko garraio premia nagusiak asetzeko. 2.000 lanpostu sor daitezke EAEn eta Nafarroan enpresa handietan eta industrialde guztietan mugikortasun iraunkorrerako planak ezarriz, garraio publikoko sareak populazio gune bakartuetara hedatuz, aldiriko trena modernizatuz, garraio publiko sarearen integrazioa burutuz eta autoa partekatzea sustatuz.

Hondakinak

Aprobetxatu beharreko bertako beste

baliabide bat hondakinen kudeaketako materialak dira. Horretarako, hondakin bolumen orokorra arras murrizteaz gain, hondakinak jatorrian bertan gaika bereizteko ohitura hedatu behar da, tresna eta objektu baliagarrien berrerabilera sustatu, eta berriz erabiltzeko ontziak kudeatzeko itzulketa-sistemak ezarri. EAEn, 7.000 lanpostu sor daitezke paper hondakinak eta ontzi arinenak birziklatuz gero (155.000 tona eta 115.000 tona, hurrenez hurren, 2010ean). Hondakin hauek zabortegira bidaltzen dira edo erraustu egiten dira. Nafarroan, 900 lanpostu sortuko lirateke.

Agroekologia, arrantza eta basozaintza iraunkorrak

Hamarkadak dira nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basozaintza gainbehera ari direla, merkatu askeak ezartzen duen lehia desleialagatik, neurrigabeko industrializazioagatik eta neurrigabeko hazkundearen lasterketagatik. Hala eta guztiz ere, kalitate eta iraunkortasun iturri emankorrak izan daitezke, hiru bide hauetatik joz gero:

- Azalera handiagoa erabiltzea ekoizpen ekologikorako. Gure kalkuluen arabera, ENEEKek (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua) egiaztatutako

azalera % 10 handituz gero, urtean beste 500 lanpostu sortuko lirateke; arrantza iraunkorrek edo artisau-erakoak, berriz, 450 lanpostu zuzenekoak nahiz zeharkakoak sor ditzake (eraldaketa industrian adibidez).

- Sektore ez-iraunkorren birmoldaketa ekologikoa. Nekazaritza ekologikoak nekazaritza intentsiboak baino %30 eskulan gehiago behar du; hori dela eta, 5.400 lanpostu sor litezke EAEn eta Nafarroan sektore horretan.

- Ekoizpena elikadura-burujabetzara bideratzea. Nekazaritzan ekoiztutako elikagaien %20 EAEn bertan ekoitziz gero (egun, % 5 ekoizten da), 330.000 hektarea erabiliko lirateke horretarako, eta horretan diharduen biztanleria aktiboa, berriz, % 1,5etik % 5era igoko litzateke, hots, 25.000 lanpostura (egun, 8.000). Birkokatze horrekin batera, ekoizpen eta kontsumo zirkuitu laburretan egin behar da komertzializazioa (kontsumo taldeak, ekoizle eta kontsumitzaile kooperatibak, etab.).

Posible da enplegua sortzea egungo baso-industria balio erantsi handiagoko espezieen ustiapenera edo biomasaren ekoizpen iraunkorrera bideratuta, eta erregai fosilekiko mendekotasuna murriztuko litzateke. Nafarroako Gobernuaren kalkuluen

arabera, 1.650 lanpostu zuzenekoak eta zeharkakoak sor daitezke hori eginez gero, egun sektoreak dituen 4.000 lanpostuen osagarri.

Uraren kultura berria

Beste 1.000 lanpostu sor daitezke, ura aurrezteko eta zentzuz erabiltzeko politikak areagotuz gero. Ura ondasun eskasa dela eta izango dela jakinik, nekazaritzako ureztatze sistemak modernizatu eta hornidura sareetako galerak murriztu egin behar dira. Hondakin urak arazteko planak burutu egin behar dira eta saneamendu sare bereziak finantzatu. Sare horiei esker, euri-ura araztu eta beste erabilera batzuk eman dakizkioke.

Industria

Iraunkortasunerantz bidera daiteke euskal ekoizpen eredu industrialia (ekodiseinua eta bizi-zikloaren azterketa, produktuen iraupen luzeagoa). IHOBEn (2011) kalkuluek diotenez, 2020an beste 850 lanpostu izan ditzake industriak birziklatze lanetarako, 100 altzairu-sektorean eta 1.250 ekipo eraginkorragoen fabrikazioan.

Saltokien leku-aldaketa, zerbitzu publikoak eta lanaldiaren murrizketa

Azkenik, enplegu berdetzat zenbatu ez ditugun arren, 15.000 enplegu sor ditzakete beste jarduera batzuek. Adibidez, EAEko hirietako saltoki handien eta hipermerkatuen ordeztokian tokiko merkataritza sustatzeak. Bestalde, 10.000 lanpostu (gutxienez) sortuko lituzke herritarren premiak (hezkuntza, osasuna, berdintasuna, mendekotasuna, gizarte-zerbitzuak) kalitatezko zerbitzu publikoen bidez asetzeak; lanaldia murriztuz enplegua banatzeak (35 orduko lanaldiak ezartzeagatiko hobariak), berriz, 15.000 lanpostu.

Enplegu iraunkorren sorkuntza sektoreka EAEn eta Nafarroan

Eraikinen birgaitze lanak		41.500 lanpostu
Energia sektorea		26.300 lanpostu
Mugikortasuna		2.500 lanpostu
Hondakinak		7.900 lanpostu
Agroekologia, arrantza eta basozaintza iraunkorrak		25.000 lanpostu
Uraren kultura berria		1.000 lanpostu
Industria		2.200 lanpostu

GUZTIRA: 106.400 lanpostu